

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Boni Alberdi Jauregi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1926-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Loiola auzoan jaio zen, Plazaburu izeneko kale-baserrian. Ama Tolosan jaioa zen, baina Astigarragako Ubarburu baserrian bizia; aita, berriz, azpeitiarra. Hiru senide ziren. Loiolako eskola publikoetara joan zen Boni, bai gerra aurretik eta baita ostean ere; gerra garaian, baina, hiru urte egin zituzten Astigarragan, baserrian. Aita mehatxatuta zegoen, abertzalea izateagatik, eta han ezkutatu zen familia osoa; Egiako teila fabrikari egiten zuen lana, gauez. Hamar urterekin hasi zen lanean, lehenengo Donostiako kirol denda batean, arotz gero; gau eskolara joaten zen, San Inazio kolegiara. Enkofradore moduan urte batzuk egin ostean, Igeldoko Udalarentzat lanean hasi zen, ur bonben sistema kontrolatzen. Horrekin batera 'La Voz de España' egunkarian ere jardun zuen, esterotipoan, 30 urtean. Ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-075

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-11
- **Iraupena:** 97 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Loiola auzoa nolakoa zen

- **Erref:** DON-075/002
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:00:34. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Loiolako kuartel parean jaio zen, baserri-etxe batean: Plazaburu. Nagusiak eta beraiek bizi ziren han. Untxiak zituen aitak. Loiola nolakoa zen, etxe gutxi eta baratz askorekin. Baserriak. Labaderoa.

2. Urik eta argirik ez etxean

- **Erref:** DON-075/003
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:06:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Labaderoa zegoen orain kultur etxea dagoen tokian. Urik eta argirik ez zuten etxean. Kinkea, karburoarekin. Kandelak. Ilundu orduko ohera.

3. Astigarragan, baserriko lanetan

- **Erref:** DON-075/004
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:06:33. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Hiru senide ziren. Ama Tolosakoa baina Astigarragan bizitua, Ubarburu baserrian, eta aita azpeitiarra. Baserriko lanetan ibili zen bera ere: artajorran, laiarekin... Sagardoa egiten zuten.</p>

4. Gerra sasoian, baserrira

- **Erref:** DON-075/005
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:11:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Loiola bonbardatu behar zutela eta, gerra denboran Astigarragako baserrian bizi izan ziren. Tiroak. Martutenen milizianoak, Campos Eliseos-en; ondo portatu ziren beraiekin.

5. Aita Egiako teila-lantegian lanean

- **Erref:** DON-075/006
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:11:37. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Aitaren lana: Egiako teila-lantegian, labeetako arduraduna zen. Oinez joaten zen. Gerra denboran, aita ospitaleak zaintzen egon zen, eta gero ezkutatu egin behar izan zuen. Fraisorotik ekarritako anaia. Hiru urte egin zituzten Astigarragan.

6. Loiolako eskola publikoan, gerra aurretik eta ondoren

- **Erref:** DON-075/008
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:14:56. **Bukatu:** 00:18:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gerra hasi zenean, 10 urte zituen. Eskolan pilotan eta baloiarekin ibiltzen ziren. Loiolan bertan ibili zen, eskola publikoan. Maisu erdaldunak. Mutilak eta neskak aparte. Dena erdaraz, euskara galarazi zuten. Gerra denboran, euskarazko eskola batzuk hartu zituzten emakume batekin, Astigarragan. Eskolako zigorrak.

7. Mutikotatik lanean, kirol denda batean; arotz lanak gero

- **Erref:** DON-075/009
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:18:28. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Eskolan ikasi zuena, hiruko erregela arte. Kirol denda batean hasi zen lanean mutikotan, Hondarribia kalean. Gero, arotzeria ikasi zuen. Gau eskolara joaten zen, san Ignacio ikastetxera, fraideekin. Oinez etxera.

8. Arotz lanak

- **Erref:** DON-075/010

- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Arotz lanak, Marina kalean: egur motak, altzariak, tresnak... Enkarguzko lanak. Oinez joaten zen lanera, labadero ondoko frontoian pilotan jokatu ondoren.

9. Pilotan eta habia bila

- **Erref:** DON-075/011
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Pilotak erosi egiten zituzten. Barrenera jokatzen zuten. Txoritan ere ibiltzen zen, habia bila.

10. Dantzara eta sagardotegira

- **Erref:** DON-075/012
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:28:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Dantzara nora joaten ziren, Campos Eliseos-era. Igeldora ere bai, Erreteriarra, Pasaiera... toki gehienetara oinez. Sagardotegiak: Egian Faustinoarena, Loiolan beste bi... Toka eta boloak.

11. Bolatokia eta toka jokoa

- **Erref:** DON-075/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:30:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Bolatokiak, sagardotegi gehienetan. Txaparroa. Toka jokoa nolakoa den. Sagardo erronda jokatzen zuten.

12. Sagardotegira igandetan, arraina merke jatera

- **Erref:** DON-075/014
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Kupeletik edaten zen sagardoa. Bost zentimo kobratzen zuten basoa. Igandetan joaten ziren. Arrain kazola jaten zuten; oso merkea izaten zen. Bakailaoa, legatza. Etxetik ere eramaten zuten janaria, ezkondu ondoren. Ezkondu aurretik, goizez joaten ziren.

13. Prozesioak ikustera Donostiara eta Astigarragara

- **Erref:** DON-075/016
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:34:43. **Bukatu:** 00:36:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Loiolan ez zen prozesiorik Aste Santuan, eta Donostiara joaten ziren. Loiolako andazainak. Artzain Oneko prozesioan paso asko. San Bizenteko prozesioak. Astigarragara ere bai. Kongregaziorik ez zegoen Loiolan; meza bai, igandero. San Kristobalera ere joaten ziren, Egia.

14. Inauterietan, baserriz baserri kantuan

- **Erref:** DON-075/017
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:36:44. **Bukatu:** 00:39:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

<p>Dotrina ere erdaraz ikasi zuen. Apaiza Hondarribikoa zen; ondo kantatzen zuen. Gabonetan ez, baina inauterietan baserriz baserri kantuan. Merienda, arrautzekin; mutilak bakarrik. Neskak beti aparte.</p>

15. Mutilen jolasak; igerian nola ikasi zuen

- **Erref:** DON-075/018
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Mutilen jolasak: txorro-morro, kanikak. Mendira: Adarra, Aiako Harria, Jaizkibel... egun-pasa. Errekan bainatzen zen, baserrian; zentraleko presa. Ondarroan ikasi zuen igerian, bizilagun feriantekin joanda.

16. Loiolako errioa: bainuak, arropa garbitzea, arrantza

- **Erref:** DON-075/019
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:45:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Loiolako errioan ibiltzen zen igerian, baina galarazita zegoen. Arropa garbitzen ere egoten ziren emakumeak, etxetik ohola eramanda. Korrokoia zeuden. Umea zela, aita angulak atera zituen eta aingirak. Aingirak sardexkarekin harrapatzen.

Transkripzioa

-Eta Loiyolan, hor e... errekan-eta ibiltzen zan jenderik ala...?

-Ordun gu ibiltzen giñan... bueno, hoi, hoi gaztetan geo, e? Han erriyuan igari gu ibiltzen giñan, baiño...

-Igerian?

-E?

-Igerian, ala...?

-Igerian, bai. Baiño galaziya zeon, ta ordun guardia etortzen zan, eta hua etortzen zanian ospa danak! Bat alde batea eta bestia bestea! Korrika! Erropak hartu [...] bezela ta aire!

-Trajedebañorik-ta bazenuten?

-Bai, bai.

-Ta han bazeon hola... erriyora jeisteko aldaparik edo...?

-Bai. Bai, han esan dizut han hor... frontoia don hortan rampa bat zeon, ta han, hantxe bertan. Emakumiak´e hara juten zian erropa garbitzea. Han eta gu bizi giñan pare xamarrian´e bai. Han´e...

-Erriyora?

-Gue ama-ta han... erropak garbitzen zituen.

-A bai, e?

-Erriyuan, bai.

-Eta bazeon harririk edo...?

-Ez, ez. Etxetik ematen zuen ohol bat. Eta hantxe garbitzen zituen bere... etxeko erropak.

-Eta arrantza, iten zan? Bazeon arrairik ala...?

-Arraiya bai... Ordun oan baiño garbiyaguak zian, bai... baiño ez zan, e...

korkoia ibiltzen zan; ez, ez zan jaten. Baiño han, ni goatzen naiz, ni mutil koxkorra nitzala, txikiya nitzala, ne aita zanak angulak atea zitun handik. Bai. Kuartel ondotik.

-Joe.

-Asko ez, e, baiño... han angulak´e bazian, ta [...] aingira haundiyak in zian. Joe, han honbesteko luzeko zeak, aingirak bai.

-A bai, e?

-Bai.

-Ba aingira jaten zan, ezta?

-Bai, bai, bai. Ta hoi handik jan, erriyotik jan ditut, baiño errekan, han... baserriko hartan, han aingirak tikiyak izaten zian, baiña oso fiñak, oso goxuak jateko. Bai.

-Eta nola harrapatzen dira? Zu ibiliya zera hortan?

-Hori iten genun ba... presak bezela jarri... erropa garbitzen zuten tokin presak bezela jarri... egurrakin ta hola. Eta goi xamarretik erriyoa jaisten giñan, erreka jaisten giñan ta... eta ya bultzatzen giñun ta... han ibiltzen giñan tenedoriakin. Tenedoria sartu, eta kraka!

-A bai, e? Tenedo... Joe.

-Harekin, taka! Bai.

-Abilidadia biharko zan, tenedoriakin harrapatzeko!

-A bai! Uuuuif... Hoik bela juten dia, e! Bai, harrapatzen giñuzten. Beste batzuk itzula iten zuen ta biyak batea... Bai, holaxe.

17. Gerra osteko gosea; aitaren lanpostua

- **Erref:** DON-075/020
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:45:44. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Gerra osteko gose garaia. Astigarragatik ekartzen zuten zerbait, baserrian lana egitearen truke. Ezkondu zenean, miseria. Azak. 1970ean aita hil zen, eta haren postua hartu zuen: Igeldoko urak.

18. Enkofratzaile lana; istripua

- **Erref:** DON-075/021
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:51:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Aurretik, etxeak egiten arotz gisa, obretan: enkofratzaile lana. Donostian, Tolosan... Tresnak. Aldamio eskasak. Istripua izan zuen.

19. 'La Voz de España' egunkarian lanean I

- **Erref:** DON-075/023
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:51:18. **Bukatu:** 00:55:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

<p>La Voz de España egunkarian egin zuen lan, esterotipian. Prentsan letra kartoira pasatu, eta gero plantxa egin, eta errotatibara. Moldeetan beruna nola sartzen zen. Orri bakoitzak bere plantxa. Erredaktoreak goian, eta behean kajistak, letrak jartzen, eta linotipistak.</p>

Transkripzioa

-Ta geo ya, ayuntamentuan hasi nintzan, ta geo txapuzak in ta... Geo, geo atea zitzaten... La Voz de Españan hasi nitzan lanian. Laun batek sartu niñun ta...
-A bai, e?
-Bai.
-Eta ze...?
-Ta geo han esterotipia, esterotipian aitu nitzan. Bai, ta...
-Danetik in dezu zuk!
-Nik danetik.
-Ta hor nola zan lana, La Voz de Españan?
-La Voz de Españan zan ba... esterotipia-ta zan e... hoi izaten zan e... zea... [...] Izaten zan... plantxa batzuk, "o sea", jesus, prensa batzuk, eta bueno, [...] esaten giñun guk. Dena letrak eta dana jartzen ditue inprentan, eta hartu haik, eta prensa hortan kartoi batian pasa. Eta geo kartoi hortatik... eske gauzak in... behar zaiyo, kaltzatu ta ti-tik... gauza batzuk in, ta...
-Ze gauza in behar zaizkio?
-Atzetik kartoi horri in behar zaiyo ba... danak e danak tintakin eman... ez zikintzeatik, ba iten zaiyo kaltzatu atzetik, kartoi txiki batzuk... kartoiyakin. Dana eskuz. Baiña presa-presaka, urtiak eakutsi iten dute! Eta geo hoi in ta geo plomoa pasa. Hua jarri makiña batian, ta plomo batekin plantxa bat in, eta hua geo rotatiba pasatzen zan, ta rotatiban ba...
-Gero ateatzen zian kopiak?
-Bai.
-Plantxa horrekin?
-Bai.
-Eta plomora nola pasatzen zan?
-Plomoa nola pasatzen zan? Hoi ba... iten zan ba molde bat, burnizko molde bat. Eta geo kartoiya jartzen zitzaiyon han, okertuta, e. Hua jarri han, eta itxi konpuerta ondo, ta bonba batekin, ttuuuuurt... Plomua ra sartzen zan han. Ta bete iten zan molde guztiya, ta geo hua itzaltzen denian atea, eta geo hua hartu ta rotatibara.
-Eta periodikuko orri bakoitzak plantxa bat zeukan?
-Pagina bakoitzak plantxa bat.
-Pagina bakoitzak plantxa bat?
-Bai.
-Ez zun balio plantxa batek bintzat, gero doblatu...
-Ez, ez, ez. Plantxa bat, pagina bat.
-Orduan lan haundiya zan...

-Puf, lana, lan asko.
 -Ta nork iten zitun... hasierako... testuak eta letrak... Letrak-eta nork jartzen zitun?
 -Hori linotipia, linotipistak.
 -Linotipistak? Zu hortan ibiltzen zifan?
 -Ez, ni ez, ni ez. Hori beste... hoi beste seziyo bat zan.
 -Eta ze zeuden, e... periodistak, eta gero aparte...
 -Periodistak danak goiyen eta redaktoriak eta denak goiyen. Ta geo behian ba... zea, e... letrak eta bueno... kajistak esaten zaiye. Kajistak, letrak jartzen. Buru, zea... notizien buru iteko, e. Hoi dana eskuz iten zan. Letrak hartu ta taka-taka-taka jarri, eta geo gafiñontzekua linotipian.
 -Ze pasatzen ziyeten, testua papelian?
 -Bai.
 -Eta beraiyek gero letrak jarri?
 -Hoi da, hoi da. Ba letra txikiya...
 -Letrak metalezkuak izango zian; burdinezkuak edo...?
 -E, zea, plomozkuak.
 -Plomozkuak.
 -Plomua e, zea, plomo gogorra. Eta geo ba linotipistak eta iten zuten linea bakoitza, periodiko linea bakoitza.

20. 'La Voz de España' egunkarian lanean II

- **Erref:** DON-075/025
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:55:22. **Bukatu:** 00:59:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

<p>La Voz de España egunkarian lanean. Prozesua: kajerek eta linotipistak molde egin, eta gero kartoira pasatu. Lanera, gauerdian. Errotatiba zein lekutan egon zen. 280 langile; emakume gutxi, bulegoko lanetan bakarrik. Egunkaria hiru tokitan ezagutu du; azkenengo tokia Grosen dago (ikus mapan). 30 urte egin zituen han; Igeldoko lanarekin batera. Hiru seme-alaba.</p>

Transkripzioa

Oain, oain ez dia hola iten, e, baiño habek iten zitun kajistak, buru habek. "Cabeza" esaten dia hoiek. Eta gero gafiñontzian habek danak linotipistak. Bakoitzak linea bat, linea bat... danak. Gero hoik danak enkajutzen zituen zea batian, molde batian, eta gero molde hoi betetzen zutenian, guk hartu ta eamaten gendun hua, ta prensara. Ta prensan sartu kartoi hortaa, ta gero kartoi hortatik...
 -Kartoi horrek ze hartzen zun, forma? Letren forma?
 -Bai, klaro. Kartoi hortan geatzen zian...
 -Geratzen zian letrak?
 -Letrak, letrak. Aldrebes. Beti alrebes.
 -Alrebes, baiña letren forma geratzen zan markatuta...
 -Hoi da, kartoi hortan. Eta gero plomoa. Handik plomoa pasa, [...] zala, eta gero ba handik rotatibara.
 -Eta zenbat denbora behar zan hori dana iteko?

-Bueno, guk iten giñuzen ba igual... igual ba hiru ordu, hiru ordu ta erdi. Danak, e, pagina guztik iteko.

-Eta aurretik, linotipistak beste...

-A, bai, bai, hoi linotipiakuak. Gu... gu lanean sartzen giñan hamabietan gabian. Linotipistak sartzen zian hamarrak, hamarretan, e, eta haik ya gu juten giñaneako preparatuba zauden, eta gu ordun ya lanian hasten giñan. Eta geo, hoi bezela, guk bukatzen gendunian rotatibak hartu plantxa guzik ta jarri bere lekun, [...] ta geo ya periodikoa bota.

-Ta hantxe bertan zeon errotatiba?

-Bai, bai. Dana, bai.

-Eta nun zeon hori, La Voz de España?

-Bueno, ni hasi nitzanean zeon, e... Calle Eason zeon rotatiba. Geo handik kanbiatu giñan calle San Martziala. Ta geo San Martzialetik etorri giñan honea: oaiñ IMEN nola do hemen? IMEN, IMEN o esaten zayo noski... zea, um, geldituta daudenak...

-INEM? Bai, bai.

-INEM, INEM. Hemen bertan bakizu nun daon?

-Uste det baietz, bai.

-Bueno, ba hoi dana zan La Voz de España. Edifizioa hor zeon dana. Gu hor giñan, danak...

-Jende asko egongo zan hor lanian...

-Bai, berrehun ta... berrehun ta larogei uste det ziala, giñala. Bai.

-Eta danak gizonak, ala...? Emakumiak ere egongo ziran...

-Emakumiak ofizinan. Gaiñontzian ez. Oain ya Diario Vascon ta hoitan izaten dia, baiño orduan ez. Ordun matxistak gehiyo giñan.

-Eta zenbat urte in zenitun han lanian?

-Han lanian in nitun, e... han in nitun hogeita hamar.

-30, e?

-Bai. Gaiñea bitan, bitan iten nitun, e? Igeldoko hua ta hemengua. Biyak batea iten nitun, "o sea que" gaba ta eguna okupatua, esan bezela.

-Hori, eta ezkontuta, eta zenbat seme-alaba? Hiru?

-Hiru, hiru bai. "Así que"...

-Orduan entretenituta egoten ziñan...

-Bai, bai, bai. Geo, gaiñea txapuza gauzen... txapuza asko iten nitun, e? Ateatzen [...] guztik.

21. Ezkontza eta ezkon-bidaia; orduko soldata

- **Erref:** DON-075/027
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 01:01:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Grosekoa du emaztea. San Inazio parrokian ezkondu ziren, 08:30ean, astegunez. Bilbora ezkon-bidaia. Astean 140,40 pezeta irabazten zituen udalean. Bodega Donostiarra toki askotan zegoen.</p>

22. Igeldoko ur bonbak

- **Erref:** DON-075/028
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:01:54. **Bukatu:** 01:03:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Bizikleta erabiltzen zuen lanerako hasieran, Igeldoko ur bonbak kontrolatzera joateko. Lourdes Txiki. Iturburua.

23. Jaunartzea Grosen; "txekorra saltzea"

- **Erref:** DON-075/029
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:03:59. **Bukatu:** 01:06:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>San Inazion jaunartzea, Loiolako eliza egin gabe zegoen. "Txekorra saltzea" esaten zioten konfesatzeari. Astigarragara, Martutenera mezara. Konfesioa. Elizan neska-mutilak aparte, zahar zein gazte. Sermoi beldurgarriak.</p>

24. Txerria hil eta "txerri muinak"

- **Erref:** DON-075/036
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:10:05. **Bukatu:** 01:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Baserrian txerria hiltzen zuten, eta "txerri-muinak" banatzen zituzten. Gatzarekin kontserbatzen zituzten txerrikiak. Albaitaria. Odolkiak eta txorizoak egiten zituzten.</p>

25. Baserriko bizimodua, gerra sasoian

- **Erref:** DON-075/037
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 01:11:35. **Bukatu:** 01:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Izeba plazara joaten zen, eta lehengusua ere bai. Esnea eramaten zuten hoteletara; txerri-jana hartzen zuten. Hura apartatzea hiru-lau orduko lana. Gerra garaian ez ziren eskolara joaten. Belar txarrak kendu, behizain. 06:00etan Astigarragara joaten zen ogi bila, menditik.

26. Baserrian egunero babarrunak

- **Erref:** DON-075/038
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:15:53. **Bukatu:** 01:18:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Denak batetik bazkaltzen zuten baserrian, egunero babarruna; igandetan zuria. Ondo jaten zuten. Fruta arbolak: sagarra, gereziak. Lau kupel handi betetzen zituzten sagardoz eta sei barrika. Sagarra saldu ere egiten zuten. "Kizkia". Dolarea. Txikitzeke makina.</p>

27. Sagardoa eta pitarra egiten, etxerako

- **Erref:** DON-075/040
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:18:35. **Bukatu:** 01:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Sagardoa egiten. Txikitutako sagarra dolarean jarri, eta prentsatu. Karga bakoitza sei sagar zaku. Gurdi bakoitzean lau zapabost karga. 200 zakutik gora. Pitarra eta sagardoa, dena etxerako.</p>

28. Amak errekan garbitzen zuen arropa

- **Erref:** DON-075/044
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:22:19. **Bukatu:** 01:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

San Martin plazara joaten zen, zaldi-karroan, Joxepa Antoni lehengusua. Amak etxeko lanak egiten laguntzen zuen; errekan garbitzen zituzten arropak, aurretik ur berotan beratzen edukita tinatan.

29. Zazpi-zortzi esne marmita egunero

- **Erref:** DON-075/045
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:24:20. **Bukatu:** 01:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserria handia zen. Ukuilua, zalditegia, dolarea... Lehengusuak jezten zituen behiak, eskuz. Zazpi-zortzi marmita. Hoteletara eramaten zuten esnea.

30. Gaztetako afizioak: mendia eta dantza

- **Erref:** DON-075/047
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:26:20. **Bukatu:** 01:29:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Menda eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

<p>Gaztetako afizioak: mendian ibiltzea eta dantza egitea. Mutilak bakarrik joaten ziren, ezkondu artean; ez zegoen ohiturarik. Trena ez zuten erabiltzen. Tranbia bai, Hernanin. Autobusak Astigarragaraino. Amaren garaian ez zegoen, eta zestoa buruan hartuta oinez joaten zen Donostiaraino.</p>

31. Loiolan baserriak bai, baina lantegirik ez

- **Erref:** DON-075/048
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:29:09. **Bukatu:** 01:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Loiolako dendak: janari-denda, estankoa, ile-apaindegiak... Lantegirik ez. Baserriak zeuden bakarrik. Gerra denboran itxi zuten Egiako teila-lantegia; oinez joaten zen lanera aita, erdi ezkutuan, Altzatic barrena.

32. Loiolako euskara eta inguruetakoa, berdinak

- **Erref:** DON-075/050
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 01:31:41. **Bukatu:** 01:35:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Loiolan denek zekiten euskaraz. Gurasoen euskara du berak. Francori eskerrak erdaldundu ei zen. Kuadrillan, euskaraz gehienek. Loiola, Astigarraga, Hernani, Orio eta Erreterian berdin hitz egiten dela dio. Goerrin eta Azpeitia aldean diferente.</p>

33. Katak eta istorioak

- **Erref:** DON-075/052
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:35:41. **Bukatu:** 01:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Etxean beti euskaraz, kantatu ere bai. Istorioa: Aiako Harria nola sortu zen. Sorginak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com